

# AURKEZPENA

- Nafarroaren konkistak -Espainia eta Frantziaren eskutik- oraindik indarrean dirau. Horren ondorioz, zenbait puskatan zatiturik daukate, haien probintziak izanen balira. Nafarroa ez da inongo probintzia, ezta Zazpiak Baten bi lurralde bakarrik ere.
- **Nafarroa Estatu bat da**, bertako gizarte anitza eta burujabeak osatzen duena. Nafarroaren askatasuna eta Nafar Estatua bereiziezina dira.
- **Lurraldearen batasuna**, zein bateratze juridiko-politikoari dagokionean, Nafarroa osoaren gizarte da **-ezarritako mugen gainetik-**, bere lurraldean bertan burujabe eta askatasunez bizitzeko eskubidearen gainean erabakia hartu behar duena.
- **Libertate nafarra** alderdi politikoa, nafar gizarteak **batasuna berreskuratzeko helburuaz sortu da**, eta bide horretatik haren **eskubide eta askatasun guztiak** erabat gauzatu ditzan. Hortaz, Nafar Estatuaren berregitea lortu nahi du, nortasun polarizazioarekin behin betiko bukatuko genukeelarik.
- **Ln zerbitzu publikoen alde dago**, eta murrizketa zein pribatizazioen aurka. Hortaz, egiazko Ongizate Estatu -nafar Estatuaren oinarrizko ezaugarria- zainduko du, betiere nafar gizarte mendean hartu eta indarrez ebasten duten bi Estatuak darabilten eraso neoliberalaren aurka.
- Ln-ren aburuz, ez dago gaur egungo **larrialdi ekonomikotik ateratzerik**, nafar gizartearen eskubide eta askatasunak, zein haren burujabetza ekonomikoa, ukatuak eta mugatuak dauden bitartean.



libertate nafarra

DIRU-EKARPENAK:

NAFARROAKO RURAL KUTXA

3008 0090 2130 2000 9829

[www.libertate.eu](http://www.libertate.eu)

[info@libertate.eu](mailto:info@libertate.eu)